


INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI) 2003ko otsaila

Euskal AE-ko Industri jarduera %2,5 hazi zen 2003ko otsailean

Industri Produkzioaren Indizea igo egin zen Gipuzkoan (%4,4) eta Bizkaian (%2,0) eta Araban, berriz, ez zen aldatu, aurreko urteko hil beraren aldean.

2003ko otsailean, %2,5 igo zen Euskal AEko industri jarduera, aurreko urteko hil beraren aldean, EUSTATEk landutako datuen arabera. Urteko lehenengo hilabeteetako hazkunde-tasa metatuak, aurreko urteko aldi beraren aldean, %1,3ko hazkundera izan du lan-egutegiaren balio homogeneotan, baina balio absolutuetan neurtuta, %0,6 jaitsi da.

Euskal AE-ko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hiruhileroko hazkunde zuzendua, 1997-2003



(*)2003ko otsaileko urte arteko hazkunde zuzendua

Iturria: EUSTAT.

2003ko otsailean, urte arteko aldakuntzarik positiboenak sektore hauei egokitu zaizkie: zurgintza (%17,0), makineria (%6,9), garraio-materiala (%5,4), kautxua eta plastikoa (%4,9) eta material elektrikoa (%3,8) arloei, besteak beste.

Urte arteko tasarik negatiboenak, berriz, honako hauek izan dituzte: petrolioaren fintzea (%-22,9), metalezko eta ez-metalezko meak (%-15,2), larruaren eta oinetakoaren industria (%-9,6), bestelako manufakturak (%-7,3) eta ez-metalezko industria (%-3,2) arloek, batik bat.

Ondasunen helburu ekonomikoka, 2003ko otsailean guztien urte arteko tasak igo dira, intentsitate desberdina izan arren: bitarteko ondasunek eta ekipo-ondasunek %4,3 eta %3,2ko tasa positiboak izan dituzte, hurrenez hurren; eta kontsumo-ondasunek, aldiz, %0,3ko bilakaera positibo neurritsuagoa.

Industri Produkzioaren Indize Orokorrak bilakaera desberdina izan du hiru herrialdeetan: alde batetik, Gipuzkoak izan du urte arteko hazkunderik handiena, %4,4koa, eta ondoren Bizkaia neurritsuagoa, %2,0koa. Bestetik, Arabak ez du aldaketarik izan aurreko urteko otsailaren aldean.

Taula: 2003ko OTSAILA. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen aldakuntza-tasa (%)

Kontzeptua	Aurreko urteko hil beraren aldean		2002ko urtarri-otsaileko tasa metatua		2003ko urtarri-otsaileko tasa metatua	
	originala	zuzendua(*)	originala	zuzendua(*)	originala	zuzendua(*)
Indize orokorra: Euskal AE	2,5	2,5	-0,1	-0,2	-0,6	1,3
Araba	0,0	0,0	0,8	0,7	-1,9	0,0
Bizkaia	2,0	2,0	-0,3	-0,4	0,2	1,9
Gipuzkoa	4,4	4,4	-0,4	-0,5	-0,7	1,3
Indizeak helburu ekonomikoka- Euskal AE						
Bitarteko ondasunak	4,3	4,3	-1,4	-1,5	1,1	2,9
Kontsumo-ondasunak	0,3	0,2	3,0	3,0	-4,1	-2,1
Ekipo-ondasunak	3,2	3,2	-0,2	-0,2	0,9	3,2

(*) Lanegunez zuzendua.

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Luis Carlos Jorge Alonso

Tlf:+34-945-01 75 14 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es